


Plazer ematen du Alema-
nia-ko autobideetan automo-
billa jarein uztea, eta abiadaren zorabioan eskuetan
naiz biotzean segurik eza
sentitzea. Orainari libre iges
egitea da, etorkizun amesez-
ko ezkonkretura, ezjakinera
egatzea. Zeinek ez du ala-
korik pazaldi batean proba?
Esan dezagun, baezpadan,

autobidean



zoroaldi batean.

Gogoan dut oraindik Ham-
burg-etik etortzekoan, lau
gazte kantari, nola gentozen
Dinamarka-ko turismo bate-
kin erdi jolasean. Batak
bestea pasa, agur keifnuak
egin eta parre. Iñor etzan
kilometroen ordukoaz oroi-
tzen. Gelditu giñan pausale-
ku batean, gure gosari legea
egiteko, eta dinamarkarrak,

betiko parre ta keifuekin,
aurrera jarraitu zuten. Os-
tera ordu erdi inguru geroa-
go autobidean giñala, etzan
erreza antxe moldatzea. Au-
toak, astiro astiro, batak
besteari bultzaka bezala joan
beste erremediarik etzan.
Etzuen gure kantagureak
asko irauin eta, ni beintzat,
erneguak amorratuta nen-

goela esanda ez nuke dena
aitortuko. Olako katrami-
llak ez dira agian maiz ger-
tzen, baiña ba dirudi pro-
pio aldrebesen eta kaltega-
rrien gertatzen zaizkigu-
neantxe subertatzen direla.
Edo ala iruditu.

Asarreak juizioa kixkal-
tzen duela esango litzake.
Eta ez Axular-en aholkuek
eta ez Boezio-ren konsola-

mentuek dute orduan ixtant
onik.

Agertu zitzaiguna, alare,
edozein juiziora biurtzekoa
izandu zan: an zeuden ko-
txearen intermitentea jira-
biraka ari zan, bildur zoro-
z iges egin nai luken txori
preso baten gisan.

Biaramonean egunkaria
begiratu nuenean, arretaz
gelditu nintzan autobideko
ezbearretan miatzen. Asko
ziran, baiña ez nuen gure
dinamarkarren arrastorekin

eman ahal izan. Urrutitxo
ere ba gaude-ta, onezkero.

Zenbait eta zenbaitek to-
patzen dute olaxe azkena?
Estadistikek ez gaituzte un-
kitzen. Ta USA-n Vietnam-
ekoa baiño autobidekoa gu-
du ildakotan ugariagoa omen
dana entzutea ez justifika-
zio ta ez ezer iritzi oi dugu.
Orixe, ez ezer.

Zeure gelan patxadaz exe-

rita zaudenean eta autobiodeetan ildakoen estadistikak ikusita, eskua buruan pasatu ta bekokia illuntzen duzu: arranetan!... Baiña orria pasa orduko ez dakit nungo printzeren parrandez ala De Gaulez ala zaldi aposturen batez diardukizu egunkaria. Eta orria pasatzearekin pasatzen duzu pentsamentua ere ildakoetatik ilgo direnata. Iltzekoak direnari kasoa aundirik egin gabe, agian. Eta ostera kotxean zoazenean, deabru guztien tximistan joan nai zenuke.

Nire adizkide batek, autoren bat su ta fu albotik pasatzen zaigunean, trankil trankil esan oi du: ulertu egin bear zaie, entierora doaz eta ez da gizalege berandu irixtea...

Olako zorigaitzotrik gafiñeratzan bazaien ebentualidaderako seiñale txiki bat eramatzen dute emen katoliko askok: SOS urdin txuri gurutzeko baten kristalari erantsitako papertxo borobilla. Ezaugarri onek ezer larrik balitz lehenbailehen apaiz bati otsegiteko adierazten du. Gure artean ere sartuko balitz bearbada ez luke **Irripar egizu** zalakoaren parean batere piura txarrik egingo.

Etorkizun obeagoa lan aundiekin labratzen baita, baiña olakoxe txikiekin edertzen. Eta nor ez da konturatu, dandik ezker, automobil bat bidean dabilhela etorkizunerantza doan mundu bat karreatzen ari zai-gula?

Kapillatxoak ere altxa dituzte. Raestrup-en ikusi nuen nik lehenengoa, ta kapillatxo ezezik elizatxogokia dezu. Meza entzuteko, aitortzeko ta nai izan ezker

atseden aldi bat artzeko era eskeintzen dio bidaztiari. Dorre egiturako kapillan liburu aundi bat, eta autobiodean ildako zenbaiten izen zerrenda, eskuz idatzita. Kandela asko zeuden bidaztiek ildakoeri piztuta.

Eta eliza oso txukuna. Ba daukat emen gaztelar lagun bat, alemanak espaiñolen akats guztiak daukatela dioena, baiña okerrago, organizatuta dauzkaten ezkerro. Baiña bixtan dago beste norbaiti entzun diola ori, ta xelebrekeria bat zela pentsatu zuen, umekeria utsa dana. Orregatik esaten dizu serio serio. Mediterraneoa egunero idoro oi dizute zenbaitek.

Eliza oso txukuna da Raestrup-ekoa, eta gureztat nai nukean birtute batek organizatuta gafiñera. Sarrean, elizpean, liburuak salgai, oharrak, urrengo igandetarako meza orduak. Tablero batean sermoitxo bat izan zitekean orri bat agiri da: "Itz bat aste osorako", du tituloa, eta txoferrendako moduko ebanjelioaren komentario llabur bat da.

Pasilloaren goenean abixo auxe, irakurgarri asko markaturik: gidatzaille, ezi zeure aiurria. Euskal txofer bati entzuna diot, bolantean bearrezkoena karakteroaren, aiurriaren nagusitasuna dala. Alaxa baita, izan ere, ez bakarrik bolantean, geroa edertzeko edozein egitekotan ere baizik. Eta denok nai dugu biar ederrago bat. Gizonak menderatuko duen biar bat. Zertarako, ordea, olako biarrik, gizonak lehenenik bere burua menderatzen asten ez bagera?

Itxu lapiko baten gafiñeko bigarren tablero batean gal-

derak aurkitu nituen: liturgiari buruz, sermoieri, mezaordueri, abestieri buruz. Iñork ezer sujeritu edo idaroki nai balu an sar lezake bere naiaren txartela. Benetan poztu nintzan, txartel bitartezko parteartze au Amerika-ko lantegietan ekarri onekoa bada, ez baita txarrekoa izango elizkizunen antolatzeko arazoan ere.

Bestetik, berriz, beti pentsatu dut Westfalen-go Pakea firmatu zuten aretoan idatzita dagoen printzipioa, auzi tribunaletarako ezezik, bizitza osorako ere primerakoa dala: **audiatur et altera pars**. Ots, bi alderdieri entzutea komeni da. Ze, irabazi gutxi luke ordueratze xuxenenak, bidegilleen intereseri ta komentzieri egokituko ez balitzakie.

Eta Pakesaleko esaera au aitatzek ura ikusi nueneko gogoraerazten dit. Kantabria-ko Probintzialarekin ninjoan eta lurralde oetan sarritan bezala, zeruak giroaren musaje suerte denak minutu gutxitan aldatzen dituen orietako egun bat zan. Eguzkia zan arren, ba, euri ari zuen. Aita Probintzialak, bere amak olakoetan esan oi omen zuen esaera au zitatu zuen: eguzki ta euri, azeriak dantzari. (Alemania-n egonda ere beti da posible euskera apur bat geiago ikastea). Azeria dantzari, ba.

Nere artean, liturgia berritze zoragarrienak berak, gure jendearen martxari, intereseri, ardureri, pentsaerata sentierari egokitzen ez dizkiegun artean, izango dala berriz ere lasai asko deabrua dantzari.

Jose Azurmendi.